



Durangoko XXVI Liburu eta Disko Azoka

Edorta Jimenez, kale gorriko kontalaria

Bere hirugarren elaberria kaleratu du Susa argitaletxearen eskutik: 'Speed gauak'

Edorta Jimenezek gogor heldu dio narratibari azkenaldian, eta bigarren elaberria («hirugarrena, EGUNKARIAN kaleratu nuena ere niretzat elaberria delako») kaleratuko du Durangoko azokan: 'Speed gauak'

Z.ZAMAKOLA / BILBO

Elaberriak Bilbo du gune, eta hiria gaitzat, eta genero ezberdinen arteko nahasketa gisa definitzen du autoreak berak. «Poliziakoa da, halako intriga dagoelako, zerbaiten ondoren dabilatzalako; historikoa da atzerako uneak ematen direlako; erotikoa ere bada pasarte batzuetan... eta dena ironiaz eta umorez egina».

Idazleak berak ere umorez ekin zion liburuari, era oso bitxian gainera. «Aukera neukan egunero Mundakatik Bilbora dohan etortzeko autoan, baina ordubete lehenago ekartzen ninduen. Beraz, iluntzeko 8etatik 9etara idatzi egiten nuen, egunero bi folio edo; gero arratsaldean, trenean zuzendu egiten nituen. Horregatik umorez egin nuen elaberria».

Arlo surrealista ere jasotzen du liburuak, «ezen, batzuetan eserita nagoen leku honetatik bertatik (Bilbo erdi erdiko kafetegi batean, kristaletik kalera begira), hauteskunde txartelak ikusi eta bapatean ikusten nuen bati bizarra hasten zitzaioela... begi kolpea edo, horrelako surrealismoa badago».

Hala ere, eta izenburuak dioena-

«Euskal literaturaren egoera negargarria da. Ematen du Euskal Herriak ez duela sekula irtengo etniatik, nekazal mundutik eta hala-koetatik».

ren aurka, surrealismoa ez du speedak eragiten. «Gaua da garrantzitsua, ez speeda. Gau guztiak dira speedatuak», aipatu du.

EUSKAL LITERATURA, NEGARGARRIA

Idazleak gogor kritikatu du gaur egun euskal literaturak duen gai eredu: «Nire iritzian eta irakurleari begira, egoera negargarria da. Ematen du gure Euskal Herriak ez duela sekula irtengo etniatik, antropologismotik, nekazal mundutik eta halakoetatik. Ezin dut sinestu Euskal Herrian oraindik dena izatea baserria, krimen barik ala krimenarekin, baina hori».

Beste muturrean, hiritartasuna eta kaletartasuna aldarrikatu du Jimenezek, etorkizuneko euskal literaturak jorratzen hasteko. «Nik txikitan ez dut ezagutu euskal dantzarik, bertolaririk... gu kaletarrak gara. Oso kritikoa naiz —erantsi du—, euskal literaturak irakurlerik ez badu, argi daukat nire alabarentzatko literatura egiten ez delako dela».

Salbuespenak ere onartu ditu baina «korrontetik kanpo» iharduten dutenena; esaterako, Xabier Mon-



Oso ikuspegi kritikoa du Edorta Jimenezek euskal literaturari buruz. JOSE SIMAL toiaien 'Non dago Stalin' liburuak. «Negu Gorriak-en kontzertuan egon zen publikoa, horixe da etorkizuneko irakurlekoa. Eta ni bertan egon nintzen, atzean baina bertan», gaineratu du.

«Hor demostratu da publiko euskalduna dagoela, eta nik publiko horrentzat idazten dut. Zergatik hiria? Ni korrontetik kanpo nago, 'Aizu!-ren' ahaleginaren moduan,

Maskaradaren ahaleginaren moduan, Negu Gorriak-en moduan, hirian kultura egin nahi dugun guztion ahaleginaren moduan. Eta kultura hori euskaraz egin. Hauxe da gure Bilbo, hauxe da nik maite dudana herria, beste edozein munduren gainera; hau eta Mundaka».

Hizkuntza berria aldarrikatu du Edorta Jimenezek, hiria euskaraz deskribatuko duen hizkuntza. «Eta

gero obrak motzak badira euskaren aldetik edo, bilaketaren ondorioz lortuko dugu geure obrak sinesgarriak izatea».

Berak idazketa «neorruralista» bezala deskribatzen duen idazkeraren errua erakunde publikoei egotzi die Edortak. Izan ere, «idazleak nahi duena idazteko eskubide osoa» duela aitortuta ere, «sariak banatzeko orduan eta filmeei dirulaguntza eskaintzeko orduan instituzioek zer bultzatzen duten ikusten da».

«OLERKIGINTZA ARRISKUTSUA DA»

Poesia gutxi idatzi du aspaldian idazle mundakarrak. «Desenkatu bat daukat poesiarekin: nahiz eta mila adreilu eta mila harri ekarri, eta kristoren harresia egin, ematen du batzuk erabaki dutela liburu bat baino ez dagoela duela hamabost urterik hona, eta beste guztiok ez dakit noren epigonoak, jarraitzeak edo garela. Oztopoak daude bidean eta ez daukagu indarrak oztopoak kentzeko».

Poesiaren izaera arriskutsua ere azpimarratu du Edorta Jimenezek. «Poesia egitea da emozio bat hartu, azalera ekarri eta era kontrolatuen idatzi, euspina galdu barik. Hori peligrrosoa da, buzoak egiten duena bezalakoa: hondoratu baina zorabioa datorren muga horretara ailegatu barik; gero deskonpresioa egin behar da, presio maila diferenteak dagozelako. Poesia sentimenduz egiten bada, jeiste hori da, eta deskonpresioa behar da. Nire kasuan behintzat peligrrosoa da».



San Roke Auzoa
Arbaitzalde Etxea - 45 96 29 - 46 29 64
20009 - DONOSTIA

DISKA BERRIAK

TXIRRI, MIRRI, TA TXIRIBITON : atzo ttun - ttun

EGAN : Nahasean

JOSE INAZIO ANSORENA : Ansorenatarren tanbolina00

MARKOS LANDA : Albisturko Aho Soinua

TXONTXONPILO : Kuttuna 1 - Kuttuna 2 - Xirimiri

HAT : Libertango

Aukertzen ditu



aizu! 10 URTE
OINARRIZKO EUSKARAZKO
ALDIZKARIA EGITEN

XAGUXAR
Haur literaturako sail berria

3 KOLORE = 3 ADIN
8 tik... 10 etik... 12 tik...

ELKAR DURANGON ZURE ZAIN

NON DAGO STALIN?

Xabier Montoiaren nobela liburudendetan

Susa
ARGITALDARIA

(943) 37 15 45